

## **Ondare Industriala**

Kulturaren Euskal Planaren Ondare Industrialaren  
taldearen bileretan oinarritutako txostena

2003ko Urria

<b>1. SARRERA: DIAGNOSTIKOA</b>	<b>3</b>
<b>2. AMIA ANALISIA</b>	<b>4</b>
INDARRAK	4
AHULEZIAK	5
MEHATXUAK	7
AUKERAK	8
<b>3. JARDUNBIDEAK</b>	<b>10</b>
LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK	13

## **1. SARRERA: DIAGNOSTIKOA**

Bistakoa da ondare industrialeko hainbat eta hainbat elementu katalogatu eta sailkatu gabe daudela, haien egoeraren eta arriskuen diagnostikorik ez dela egin. Hori dela eta, ezin zehazki jakin zertan den gaur egun EAEko Industria Ondarea. Hala eta guztiz ere, jakin badakigu hondatzeko edo desagertzeko arrisku nabarmena duela ondareak, bere ezaugarriengatik eta jasaten dituen mehatxuengatik.

Ezinezkoa da babestea mehatxupear dauden milaka ondare-elementuak, haietako gehien-gehienak sailkatzeko modurik ere ez baitute izan teknikariek. Badu horrekin zerikusia laneko bileretan azpimarratu den hutsuneetako batek: administrazio publikoko teknikarien eskasia, babestu beharreko elementu-kopuruarekin alderatuta behintzat.

Aipatzekoa da, bestalde, ondare higiezin handia utzi duela EAEko industria-jarduerak –eskualde batzuetan, batez ere–. Sektore industrial eta garai askotakoak dira eraikinak. Aniztasun horri esker, oso aberatsa da EAEko industria-ondarea. Alabaina, jabetza pribatuko higiezinak izaki ia guztiak, arriskua dago gehienak desagertzeko, interes ekonomikoak eta lurzoruaren gainekoak direla medio, ez baita jarri orain arte ondare hori babestu eta zaintzeko behar adina baliabiderik.

Hortaz, industria-ondarearen ‘berrerabilpena’ dugu gakoa haren biziraupena bermatzeko eta balioari eusteko. Horrez gain, zaindu eta zaharberritu egin behar dira egoera larrian edo desagertzeko zorian dauden ondasunak.

## 2. AMIA ANALISIA

### *INDARRAK*

#### Prestakuntza eta ikerkuntza:

- EAEko Industria Ondarearen Behin-behineko Inbentarioak (estatu espainiarreko lehenbizikoa) baditu hainbat irizpide industria-ondasunak sailkatu eta legearen babespean ipintzeko. Balio industrialak, balio artistiko-arkitektonikoa, balio orokorra, espazio- eta integrazio-balioa dira zeregin horretarako irizpideetako batzuk.

#### Kontserbatzea eta leheneratzea:

- Aitzindari dugu Euskal Autonomia Erkidegoa –Kataluniarekin batera– industria-ondarea ikertu, ezagutarazi eta zaintzen. Izan ere, tradizio industrial handiko herria gara.
- Hainbat eraikin eta dokumentazio suntsituta, berreskuratzeko moduan ez egon arren, izugarri aberatsa eta heterogeneoa da EAEko industria-ondarea, oinarritzko materialen eta ekipo- nahiz kontsumo-ondasunen ekoizpena izan baitugu jarduera nagusia duela gutxi arte.

#### Balioestea eta ezagutaraztea:

- Arkitektura, paisaia edo gizarte aldetik garrantzi berezia duten instalazio industrialen jabe egiteko, pizgarri fiskalak eta diru-ordainak (bideragarriak eta behar adinakoak, betiere) ematen dira, instalazio horiek zaindu eta balioesteko.

#### Kultur kontsumoa:

- Industria Ondarea ezagutzeko gero eta gogo handiagoa sumatzen da gure inguruan, bai hezkuntza-alarrean bai argitalpenetan. Hezkuntza-baliabide oso egokia da ondarea, izan ere, eta areagotu egiten du hainbat gai jorrazteko nahia (zientzia, teknika, industrializazioaren historia...).

### Azpimarratu beharreko beste hainbat alderdi:

- EAEko industria tradizionalen ezaugarri nagusiak direla eta (espazioa, forma, historia...), bereziki interesgarria da gure ondarea, hainbat ikuspegitik begiratuta: teknologia, lurraldean finkatzeko era, paisaian duen eragina...
- Gure ondarea aztertu eta ezagutarazteko borondatea ageri dute hainbat erakundek, Eusko Jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiekin elkarlanean aritzeko asmoa.

## **AHULEZIAK**

### Prestakuntza eta ikerkuntza:

- Nabarmena da jakintza-alor askotariko talderik eza, Industria Ondareari dagokionez. Baliteke unibertsitate-ikasketek behar adinako prestakuntzarik ez eskaintzea alor horretan.

### Babesa:

- Ondare-balio handiko eraikin asko hondatu dira urte gutxiren buruan. Nahiko 'berriak' ziren eraikinak eta, ustez behintzat, arriskutik kanpo zeuden. Industria-eremuak abiadura bizian, gero eta azkarrago, ari dira eraisten. Hainbat eraikin eta dokumentazio suntsituta dago jada, berreskuratzeko moduan ez dela. Ondare higigarri eta instalazioen galerak ondo asko erakusten du ez garela haiek babesteko gai izan.
- Aipatzekoa da Industria Ondareari buruzko arauak ez direla nahitaez bete beharrekoak, babestutako ondarea izan ezean. Gomendioak dira arauak, eta, azken batean, udal-politikarako gidari-edo bihurtzen dira. Hori dela eta, jaitsi egiten da tokian tokiko ondarearen garrantzia.
- 1990eko hamarkadaren hasieran, ia 1.300 instalazio zeuden erroldatuta; haietatik 150 (gutxienik) Kultur Ondasun izendatu beharrekoak dira, EAEko Kultur Ondarearen

Inbentariora bildu beharrekoak. Gaurdaino, baina, instalazio horietatik oso gutxiri eman zaie legearen babesa.

- Inbentarioa egitearekin batera ez da babes-neurririk hartzen, eta ez da ezagutarazten, ezta dagokion herri edo hirian ere, ondasuna eraitsi edo ezabatzeko erabakia – sarritan– toki-erakundeek hartzen badute ere (hirigintza-arauek, plan bereziek eta abarrek ez dute kontuan hartzen industria-ondarea).
- Behin betiko katalogoa behar da, ondarearen babes-tresnatzat erabiltzeko eta kontserbazio-ekimenei laguntzeko. Halaber, tokian tokiko ondasun garrantzitsuei buruzko informazio eguneratua behar da.
- EAEko hiriburuetan –Bilbon eta haren ingurunean batez ere–, ez da industria-, portu- eta merkataritza-jarduerak utzitako ondarea askorik errespetatu. Erakunde publikoek, berriz, ez diete ia laguntzen industria-ondarearen aldeko herri-ekimenei.

#### Kontserbatzea eta leheneratzea:

- Berrerabilpena da ondarea gordetzeko berme bakarra, balio arkitektoniko handiko ondasun bakanei dagokienez izan ezik. Eraikin bati beste erabilera bat eman behar zaionean, beste zailtasun bat ere azaldu ohi da: sustatzaileen eta teknikarien irudimen eskasa proiektuak eta ondarea elkarrekin uztartzeko.
- Industria-azalera handiak berrerabiltzeko zailtasuna (monumentu-multzoa dira, ez monumentu bakarra).

#### Balioestea eta ezagutaraztea:

- EAE ez da puntako herrialdea industria-museoei dagokienez.
- Industria Ondarea ezagutarazi beharra dago, eta hari buruzko sentsibilizazioa sustatu. Hutsune handia dago Industria Ondareari buruzko hezkuntzan, jakintza-gabezia nabarmena. Aitzindari izan zen EAE ondare horren ikerkuntzan; azkeneko 5-8 urteok,

ordea, nahiko eskasak izan ditu kultur alor horrek. Oso ondasun gutxi balioetsi eta ezagutarazten dira, nahiz eta leheneratze-proiektuak aurrera egin, eta, espezialistez gain, apenas inork jakiten duen egindakoaren berri. Herritar gehienek ez dute ondare horren berri, tarteka eskola-umeen bisitarik izaten den arren, eta ez da sortzen haren inguruan kultur turismoko mugimendu garrantzikorik, EAE osorik hartuta bederen. Atzera geratu gara beste esparru batzuekin alderatuta. Gu baino geroago hasi arren, oso proiektu kultural eta turistiko interesgarriak gauzatu dituzte beste kultur alor batzuek, gure ondarea ezagutzeko eta balioesteko lagungarriak guztiak ere.

- Ez da oraindik behar bezala preziatzen arkitektura eta paisaia aldetik hainbat eta hainbat eraikin eta instalazio industrialek daukaten balioa. Eraikin horietako batzuk martxan dira oraindik; itxita, gainerakoak. Ondasun horiek galtzeko edo hondatzeko arriskua dago, beraz, baita hirian ingurune marjinalak sortzekoa ere.

Azpimarratu beharreko beste hainbat alderdi:

- Industria Ondareko zenbait instalazio legez babestea ez da lantegi erraza. Hainbat industria-ondasun ezin dira babestu kontserbazio-politika orokor hutsarekin; konponbide eta ekimen bereziak behar dituzte.
- Koordinaziorik eza Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta udalen artean zer egin behar den erabakitzeko. Halaber, industria-ondarea babestu eta ezagutarazteko politika ausartaren premia nabari da. Energiak eta sinergiak galtzea dakar horrek guztiak, baliabideak errepikatzea edo sakabanatzea... Sektore guztietako sail denetan nabari da koordinaziorik eza.

## ***MEHATXUAK***

Babesa:

- Ekonomiaren hazkundeak, espekulazioak... eta horiek plangintza urbanistikoan duten eraginak sarri ekarri ohi dute Industria Ondareko eremu historikoak suntsitzea.

#### Kontserbatzea eta leheneratzea:

- Dokumentazio-fondoak desagertzeko zorian daude, gero eta garestiagoa baita baliabideak optimizatzea. Hori dela eta, enpresetako barruti ez-produktiboak hedapen-eremu bihurtzen dira. Hori dela eta, sistematikoki suntsitu ohi dira artxiboak, baita –zenbaitetan– haiek dauden leku fisikoa ere. Ondasun jakin batzuk babestea erabaki arren, desagertu egin ohi dira haien dokumentazio-fondoak.

#### Balioestea eta ezaugarraztea:

- Industria-jarduera zikinkeria, arriskua eta ingurumenaren/bizi-kalitatearen hondamenarekin lotu ohi da. Zoritxarrez, nahikoa arrazoi izaten da sarritan lotura hori egiteko (isurketak, zaratak, sarrerak...).

#### Azpimarratu beharreko beste hainbat alderdi:

- Badu Industria Ondareak beste arrisku bat, gero eta larriagoa gainera: eragiten dioten interesak. Ekonomikoak ez ezik, lurralde- edo hiri-plangintzaren interesak ere artean izaten dira, baita plangintza horiek egiten dituzten erakundeak elkarrekin koordinatu beharra ere.
- Aipatzeko moduko beste zailtasun bat: Industria Ondare gehiena orube estrategikoetan dago. Dirutza handiak balio dituzte orube horiek, eta enpresa berriak sortzeko aukera bikainak.

## **AUKERAK**

#### Balioestea eta ezaugarraztea:

- Industrializazioaren sinbolo dugu industria-jarduerak utzi digun ondarea. EAEn, beste ingurune batzuetan baino askoz nabarmenago aldatu du ingurunea industrializazioak. Horrenbestez, berezitasun bat eman dio ondare industrialak EAeri, nortasun-adierazle garrantzitsua.



- Berrerabilpenaren alorrean ekimen pribatuari ateak zabaltzea lagungarri izan daiteke ondarea sustatu eta sendotzeko, jende askoren iritziz oso garestia eta ez-produktiboa izaten baita ondarea publiko bihurtzea. Ekimen pribatuak lagundu egin dezake uste hori aldatzen eta EAEko industria-ondarea ezagutarazten.

### 3. JARDUNBIDEAK

#### 1. *Politikak, koordinazioa eta ekimen publikoak.*

- Hirigintzako ordenantzak malgutzea.
- Legedian aldaketak egitea, eta, arkeologian bezala, "industria-ondare zantzuak" kontzeptua erabiltzea.
- Hirigintza-planak koordinatzeko mekanismoren bat sortzea administrazioko maila guztietan: toki-administrazioan, herrialde bakoitzekoan eta orokorrean.

#### 2. *Baliabideak indartzea (trebakuntza, enplegua, lankidetzak, etab.).*

- Giza baliabideak –administrazio publikoetako teknikariak, batez ere– areagotzea, industria-ondarea ikertu, katalogatu eta zain dezaten.

#### 3. *Erakundeak, elkarteak eta enpresak.*

- Ekimen pribatuaren babesa eta mezenasgoa bultzatzea, Industria Ondarearen dinamizatzaile izan daitezen, eta aintzat hartzea enpresen mezenasgo-lanen garrantzia, sektore publikoak kulturaren egiten duen inbertsioaren osagarri egoki baitira.
- EAEko Teknika eta Industriaren Museoa sortzea. Erakunde horri legokioke biltzea EAEko industria eta teknologiaren alorretako ondasunak, ikuspegi orokorrarekin betiere. Ahal dela, Bilboko itsasadarreko lantegi zaharren batean izan behar luke egoitza Museoak.

#### 4. *Produktu-irizpideak eta zeharkako elementuekiko harremana (euskara, kultura, turismoa...)*

- Interes turistikoko gaitzat sustatzea industria-ondarea.

## 5. *Balio-katearen eta kudeaketaren alderdiak.*

### 5.1. *Ikerketa eta teknologia berriak*

- Internet bidez zabaltzea EAeko Industria Ondarearen Gidaliburua, ez baitago Sarean horri buruzko dokumentu sistematiko, ordenatu eta orokorrik.

### 5.2. *Babesa*

- Artxibo Industrialak Biltzeko Plan Orokorra eratzea, produkzio industrialari zuzenean dagozkion dokumentazio-fondoak babesteko, desagertzeko zoria dabilta eta.
- Lehentasun nagusikotzat jo diren ondare pribatuko 150 ondasunak babestea, jabetza pribatukoak izaki berrerabiltzeko aukera eman behar baitzaie, eraits ez ditzaten.
- Legearen babespean jartzea arriskuan dauden EAeko Industria Ondareko ondasunak, babes-politika programatu baten bitartez.
- Industria Ondarearen Inbentarioa handitzea. XX. mendeko 1940ko hamarkadatik aurrerako instalazio garrantzitsuak erregistratu behar dira Inbentario horretan. Data hori jarri zen mugatzat (salbuespenak albuespen) 1990eko hamarkadan.
- Museo zentralaren inguruan sektorekako museo sarea sartzea. Lehendik dauden museoak, egiten ari direnak eta etorkizuneko proiektuak sartuko lirateke sare horretan. EAeren industrializazioaren historia azaltzea izango dute helburu museo horiek guztiek.

### 5.3. *Kontserbatzea eta leheneratzea*

- Monumentu Industrialak seinaleztatzeko programa egitea. Monumentu horiek ezagutarazteko bideak indartu egingo lituzke programak, eta lagundu egingo luke haiek ondo baloratu, aprobetxatu eta zaintzen.

- Industria Ondareko ondasunak leheneratu eta berrerabiltzeko ekimenak.sustatzea Horretarako, sektore pribatua konbentzitu behar da badagoela hor errentagarritasun ekonomikorik, enpresen irudientzako balio erantsiaz gain.

#### *5.4. Balioestea eta hedatzea*

- Industria Ondareari eta Historiari buruzko material didaktikoa sortzea bultzatzea, hainbat jakintza-alorretako ikuspegiak aintzat hartuta betiere (zientzia, teknika eta historia).
- EAEko Industria Ondarea –oro har– aztertzeke eta ezagutarazteke sintesi-liburu bat argitaratzea, egungo egoeraren eta azken bi hamarkadatan alor horretan izandako gertakari nagusien berri emateko.

#### *5.5. Ondarea kudeatzeko ereduak hobetzea*

- Hirigintzaren planifikazioan dihardutenei (elkargo profesionalak, unibertsitateak, administrazioak, elkarteak...) industria-ondarearen egungo balioaren berri jakinaraztea.
- Katalogatze-lan hierarkizatua egitea, gaur egungo katalogoek (oso sakabanatuak) oztopatu egiten baitute ekimeneen eraginkortasuna. Lehentasuna duten ondasunak azpimarratzea, duten garrantziaren eta berreskuratzeko aukeraren arabera, eta berrerabiltzeko bidean jartzea.
- Arrazoi arkitektoniko, sozial edo sinbolikoengatik garrantzizkoak diren baina zaharkiturik dauden industria-instalazioak berrerabiltzeko edo haien erabilera aldatzeko kasuistika eta baldintzen azterketa sistematikoa egitea. Gaiari buruzko berriazko araudia sortzen lagundu behar luke, gero, azterketak.
- Zorrotz dokumentatzea tokian tokiko industria-ondarea eta hura balioesteko mekanismoak jartzea.

#### *6. Kultur kontsumoa dinamizatzea eta ondarea nazioarteratzea*

- Nazioarteko lankidetzak eta Industria Ondarea ezagutarazteko lanak sustatzea.

- Nazioartean egindako (eta emaitza onak utzitako) antzeko ekimenen berri bilatzea.

## **LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK**

1. Legearen babespean jartzea arriskuan dauden interes publikoko EAEko Industria Ondareko ondasunak, babes-politika programatu baten bitartez.
2. Hirigintza-planak koordinatzeko mekanismoren bat sortzea administrazioko maila guztietan: toki-administrazioan, herrialde bakoitzekoan eta orokorrean.
3. Industria Ondarearen Inbentarioa handitzea. XX. mendeko 1940ko hamarkadatik aurrerako instalazio garrantzitsuak erregistratu behar dira Inbentario horretan. Data hori jarri zen mugatzat (salbuespenak salbuespen) 1990eko hamarkadan.
4. EAEko Teknika eta Industriaren Museoa sortzea. Erakunde horri legokioke biltzea EAEko industria eta teknologiaren alorretako ondasunak, ikuspegi orokorrarekin betiere. Ahal dela, Bilboko itsasadarreko lantegi zaharren batean izan behar luke egoitza Museoak.
5. Museo zentralaren inguruan sektorekako museo sarea sartzeari. Lehendik dauden museoak, egiten ari direnak eta etorkizuneko proiektuak sartuko lirateke sare horretan. EAEn industrializazioaren historia azaltzea izango dute helburu museo horiek guztiek.
6. Industria Ondareko ondasunak leheneratu eta berrerabiltzeko ekimenak sustatzea. Horretarako, sektore pribatua konbentzitu behar da badagoela hor errentagarritasun ekonomikorik, enpresen irudientzako balio erantsiaz gain.